

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren, bere erakunde autonomoen eta merkataritzako foru sozietateen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du, 2012ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ditu eta eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2012ko ekitaldian legezkontasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Honela bada, kontratazioaren atalean HKEEk jakinarazi du AFAk urratu egin dituela hainbatetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak, hala nola zerbitzu kontratu batean aparteko luzapen bat onartu izana, pleguetan aurreikusi gabea, hornigai baten kontratazioa dagokion kontratazio espedientea izapidetu gabe, bi kasuetan publikotasun eta lehia printzipioak urratuz, eta obra kontratu baten aldaketa , ez pleguek, ez lizitazio iragarkiak halako aukerarik aurreikusten ez zutelarik.

AFAren bi erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute indarreko araudia ekonomia-finantzaren kudeaketan, publikotasun edo lehia printzipioak zenbaitetan ez bete izana salbu, besteak beste, txostenean jaso dena.

Epaitegiaren iritzira, AFAk eta Gazteriaren Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Institutuak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, nahiz AFAren kasuan 2012ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinean hainbat doiketa azaleratu dituen, geldikina 98 milioi euroan murrizten dutenak eta txostenean bertan zehaztu direnak. Berebat, Gizarte Ongizaterako Institutuaren kasuan, zalantza egoera

dago hainbat gairi loturik Estatuko Zerga Agentziarekin sortutako desadostasunetatik eratorritako ondorio ekonomikoen gainean.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten hamar foru sozietate publikoak fiskalizatu ditu; erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa da, bertan jasotako ez-betetzeak salbuetsita. Berebat, sozietate publiko horien urteko kontuei buruzko iritzi aldekoa eman du.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalari, ondareari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Azkenik, aurreko ekitaldiarekiko finantza egoerak okerrera egin duela azpimarratu da, izan ere HKEEk proposatutako doiketen ostean Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak izan duen bariazioa AFAREN zorpetzeak izan duen igoera baino txikiagoa izan da -2011n 38,7 milioi euroren zenbateko negatiboa izatetik, 36,6 milioi euroren zenbateko positiboa izatera aldatu da-. Horrezaz gain, zorpetzeak izan duen igoeraren berri ematen da, zeinak sozietate publikoak barne hartuta, 575,6 milioi euro egin dituen; hori 2009an baino % 60 handiagoa da.